



3/2020 TXOSTENA, MARTXOAREN 13KOA, KONTRATAZIO PUBLIKOAREN AHOLKU-BATZORDEARENA

HELBURUA: DEKRETU-ZIRRIBORROA, ZEINAREN BIDEZ ARAUTZEN BAITA GIZARTE ZERBITZUEN EUSKAL SISTEMAKO ITUN SOZIALAREN ETA HITZARMENEN ARAUBIDEA

I.- AURREKARIAK.

EAEko Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak (aurrerantzean GZL) 60. artikuluan ezartzen du zer formula erabil dezaketen EAEko administrazio publikoek Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko (aurrerantzean, GZES) zerbitzuen prestazioa antolatzeko. Formula horiek dira: zuzeneko kudeaketa, aipatutako lege horretan aurreikusitako ituntze-araubidea, Administrazio Publikoen kontratazioko araudiaren esparruko zeharkako kudeaketa eta irabazi-asmorik gabeko erakundeekin egiten diren hitzarmenak.

GZLko aurreikuspen horri buruz, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak (aurrerantzean, COJUA), EAEko Gizarte Zerbitzuei buruzko lege-aurreproiektuari buruzko 97/2008 irizpenean, adierazi zuen ituna dela zerbitzu publikoen kudeaketa zeharka kontratatzeko modalitate bat, eta EAEko legeria sektorialak kontratu publikoei buruzko Estatuko legeria orokorra errespetatu behar duela eta hartan oinarrituta zuzendu.

Enpleguko eta Gizarte Gaietako sailburuak, 2010eko martxoa 2ko Aginduaren bidez, hasiera eman zion EAEko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Itun Araubideari buruzko Dekretua prestatzeko prozedurari. Dekretuaren helburua da erregelamendu bidez garatzea zein den EAEko administrazio publikoen eta ekimen pribatuaren eta gizarte-interesekotzat deklaraturako irabazi-asmorik gabeko erakundeen arteko itun-araubidea, GZLaren 61. artikulutik 68.era arteko artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, legearen zortzigarren xedapen gehigarriaren edukian jasotzen den agindua betez.

Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak, Kontratazio Publikoaren Aholku Batzorde honi (aurrerantzean, KPAB) txosten-eskaerako idazkian adierazi zionez, bi txosten



eman zituen dekreturako proposatutako testuari buruz. Txosten horietan, berriz, adierazten zuen ezinezkoa zela itun-modalitate bat, administrazio publikoen kontratazio-araubide juridikoarenaz bestelakoa eta desberdina.

2014ko azaroaren 24an, KPABk kontrako txostena eman zion EAEko hirugarren sektore sozialaren lege-aurreproiektuari, hain zuzen ere Administrazioak eta lege horretan araututako erakundeek, zeinak artean indarrean zen Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen testu bateginetik kanpo baitzeuden, lankidetzan jarduteko tresnekin lotutako zenbait alderdiri. Hala ere, KPABk iruzkindu zuen egoera alda zitekeela etorkizun hurbilean, behin barne-zuzenbidean txertatu ondoren Batasuneko 2014/24/EB eta 2014/23/EB zuzentarauak. Epe hori, berriz, 2016ko apirilaren 18an amaitu zen.

EAEko hirugarren sektore sozialari buruzko lege-aurreproiektuari buruz egindako 6/2015 irizpenenean, COJUAek adierazi zuen ezen, une honetan, Batasuneko arau-esparruak aukera ematen duela kontratazio publikokoak ez diren tresnak egon daitezten gizarte-zerbitzuen prestazioa antolatzeari dagokionez. Batzordeak, hala ere, iruzkindu zuen aukera horrek zentzua zuela Europako arau-esparruan, baina ez GZLaren zentzuan, eta baldintza modura jartzen zuen legez zorrotz arautzea antolamendu-sistema alternatiboa.

Horiek horrela, Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialari buruzko maiatzaren 12ko 6/2016 Legeak (aurrerantzean, EHSSL) 15. artikuluko 1. apartatuan xedatzen du: "*Esku-hartze sozialaren esparruan erantzukizun publikoko zerbitzuak hornitzeari dagokionez, Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeekiko lankidetzaren formalizatzeko, euskal administrazio publikoek Gizarte Zerbitzuei buruzko Legean aurreikusitako hitzarmen-araubide berezia baliatuko dute*". Era berean, artikuluko 2. apartatuan aurreikusten da ezen euskal administrazio publikoek betebeharra dutela Gizarte Zerbitzuei buruzko Legean lankidetzarako aurreikusitako hitzarmenak eta esparru-akordioak formalizatzeko, erantzukizun publikoko zerbitzuen hornikuntza eta erakundeen interes orokorreko bestelako jardura sozialak estaltzeko, administrazio publikoek horrelakoak sustatzea egokitzat jotzen badute.

Lege berri hori eskuetan, KPAB honi eskatu zitzaion txostena emateko Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Itun Araubideari buruzko Dekretuaren zirriborroari buruz. Txosten hori 2017ko urriaren 10ean eman zen, eta ondorio batzuk jaso zituen, gero gogoratuko direnak zehazteko ea zirriborro berria –izan ere, txostena emanda duena indargabetuta dago– egokitzen den ala ez arautegira.

2020ko otsailaren 7an, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Saileko Gizarte Zerbitzuen Zuzendaritzak txostena eskatu zion Kontratazio Publikoaren Aholku Batzorde honi

(aurrerantzean KPAB) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako itun sozialaren eta hitzarmen araubidea arautzen dituen dekretu-zirriborroari buruz.

II. –AURRETIKO KONTSIDERAZIOAK.

TXOSTENA EGITEKO ESKUMENA.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 11. artikulua agintzen du kontsulta-organoen nahitaezko txostenak eta irizpenak eskatuko direla izapide hori arautzen duten xedapenek zehazten duten unean eta eran.

Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeak eskumena du aipatutako arauaren proiektuari buruzko txostena egiteko; izan ere, horrek eragina du kontratazio publikoan, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren Kontratazioaren araubidea ezartzeko uztailaren 27ko 116/2016 Dekretuaren 27. artikuluan a) letraren 1. zenbakian xedatutakoari jarraikiz:

«27. artikulua.– Aholkularitza-eginkizunak.

Aholkularitza-eginkizuna betetzean, hauek egitea dagokio Kontratazio Publikoaren Aholku Batzordeari:

a) Hauei buruz nahitaez informatzea:

1.– Kontratazio publikoaren alorreko edo haren eremuan eragiten dutenei buruzko xedapen orokorren proiektuak edo aurreproiektuak, Gobernu Kontseiluak edo hango sailburuek onartu beharrekoak».

Aholku Batzordearen Osoko Bilkurari dagokio txostena onartzeko eskumena; izan ere, xedapen-proiektua da eta beraren helburua ez da sektore publikoko erakundeak sortzea edota Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokor eta Instituzionaleko erakundeen egitura organiko eta funtzionalak arautzea, 116/2016 Dekretuaren 30. artikuluekin bat.

ARAU-ESPARRU BERRIA.

Sektore Publikoko Kontratuen Azaroaren 8ko 9/2017 Legeak, zeinaren bidez Espainiako ordenamendu juridikoan txertatzen baitira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauak, 11. artikuluko 6.



apartatuan ezarri zuen: "Lege honetatik kanpo geratzen da erakunde pribatuek zerbitzuak ematea, baldin eta zerbitzu-emate hori egiten bada kontratu publikoak egiteko beharrik gabe, besteak beste honako bitarteko hauen bitartez: zerbitzu horien finantzaketa soila, edo botere adjudikatzailerak aurrez finkatutako baldintzak betetzen dituzten erakunde guztiei lizentziak edo baimenak ematea, mugarik eta kuotarik ezarri gabe, baldin eta sistema horrek publizitate nahikoa bermatzen badu eta gardentasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioei egokitzen bazaie."

Bere aldetik, 6. artikulua aipatzen du ezen, hitzarmenei dagokienez, SPKL aplikatuzetik salbuetsita dagoela, baldintza batzuekin:

"1. Lege honen eremutik kanpo geratzen dira lege honetan edo arau administratibo berezietan araututa dauden kontratuen edukian sartzen ez den edukia duten hitzarmenak, honako hauek elkarren artean egindakoak badira: Estatuko Administrazio Orokorra, Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzaileak eta zerbitzu erkideak, unibertsitate publikoak, erakunde autonomoak eta Ceuta eta Melilla hiri autonomoak, toki-erakundeak, haien mendekoak diren nortasun juridiko publikoko erakundeak eta nortasun juridiko pribatua duten erakundeak, baldin eta, azken kasu horretan, botere adjudikatzaileraren izaera badute.

Hitzarmen horiek kanpoan geratzeko, honako baldintza hauek bete beharko dira:

a) Esku hartzen duten erakundeek ez dute merkatu-bokaziorik izango. Lankidetzajardueren ehuneko 20 edo gehiago egiten dituztenean merkatu irekian, uste izango da halako bokazio bat dagoela. Ehuneko hori kalkulatzeko, aintzat hartuko da guztizko negozio-bolumenaren batez bestekoa edo jardueraren beste adierazle egokiren bat; esate baterako, kontratuaren adjudikazioaren aurretiko hiru ekitaldietan hitzarmenaren helburua den prestazioa dela-eta jasandako gastuak. Jardueraren sorrera-data edo hasiera-data dela-eta edo jarduerak berrantolatu direla-eta ez badago eskura aurreko hiru ekitaldietako negozio-bolumena edo jardueraren beste adierazle egokirik-gastuak, esate baterako-, edo horiek indarra galdu badute, nahikoa izango da jarduera-mailaren kalkulua errealitatearekin bat datorrela erakustea, negozio-proiekzioen bitartez bereziki.

b) Hitzarmenak erakunde parte-hartzaileen arteko lankidetzak bat ezartzea edo garatzea, bermatze aldera dagozkien zerbitzu publikoak halako moduz ematen direla non amankomunean dituzten helburuak lortuko baitira.

c) Lankidetzaren garapenerako gida bakarra interes publikoarekin lotutako alderdiak izatea.



2. Lege honen eremutik kanpo egongo dira, halaber, sektore publikoko erakundeek zuzenbide pribatuaren peko pertsona fisiko edo juridikoekin egiten dituzten hitzarmenak, haien edukia ez badago lege honetan nahiz administrazio-arau berezietan araututako kontratuen edukien artean.

III. – EDUKIA.

Dekretu-proiektuak kapitulu hauek ditu:

- I. XEDEAK, DEFINIZIOAK, APLIKAZIO-EREMUA ETA PRINTZIOAK
- II. ITUN-ARAUBIDERA SARTZEKO BETEKIZUNAK, ETA HAREN PLANGINTZA ETA FINANTZAKETA.
- III. ITUNTZE-PROZEDURA
- IV. EKINTZA ITUNDURAKO AKORDIOEN ARAUBIDE JURIDIKOA
- V. IRAUPENA, BERRITZEA, ALDATZEA ETA AZKENTZEA.
- VI. LANKIDETZAKO ESPARRU-HITZARMENAK ETA -AKORDIOAK.

Eta hiru xedapen iragankorrek eta gehigarri batek eta azken xedapen bik osatzen dute.

IV.- KONTSIDERAZIO JURIDIKOAK.

- 1.-** Batasunak 2014n emandako zuzentzauek tresna juridiko berriak ahalbideratzen dituzte kontratazio publikoko eremutik kanpo antolatzeko gizarte-zerbitzuak; esaterako, ituna eta hitzarmena. Eta autonomia-erkidegoetakoa denez gizarte-zerbitzuak kudeatzeko eskumena, beraiena da kontraturik gabeko formula horiek arautzeko eskumena ere. Euskal Autonomia Erkidegoan, GZLk ituna eta hitzarmena aipatzen ditu kontraturik gabeko formula bezala, eta Eusko Jaurlaritzari esleitzen dio erregelamendua garatzeko eskumena.
- 2.-** Hala ere, muga batzuk zainduta egin daiteke hori: Kontratazio Publikoaren arloan Estatuak duen lege-erreserba eta kontratazio publikoari buruzko zuzenbide komunitarioko printzipioak, irizpide modura zehazteko ea gainditzen diren Estatuako oinarritzko legerian kontratazio horretako arlorako ezarritako mugak.
- 3.-** Ildo horretatik, EBJAren doktrinarekin bat etorritik, gizarte-zerbitzuen eremuko kontratazio publikoaren ordeztun-araubidea aplikatzeak zentzua dauka inguruabar objektiboak daudenean, justifikatzen dutenak kontratu publikoan esleitzeko arau orokorraren ordeztun, zeina gardentasun eta diskriminaziorik ezeko printzipioek gidatzen baitute, salbuespena aplikatzea, zeinaren printzipio gidariak unibertsaltasuna eta solidaritatea baitira.
Inguruabar objektiboak dira zerbitzu bat aurrekontu-orekako baldintzetan ematea dakartenak, efizientzia ekonomikoagatik eta egokitzeagatik. Soilik aurrekontu-



arrazoiak batera gertatzeak, zeinak behartzen baitu –ahal den neurrian– gastuak kontrolatzera eta saihestera gehiegikeriaz erabiltzea pertsona guztientzako izaera solidarioko eta sarbide unibertsaleko zerbitzuak eman edo ematen jarraitzeko finantza-bitartekoak, bitarteko teknikoak eta giza bitartekoak, bide emango luke salbuespen bat egiteko zerbitzuak aske emateko eskubide komunitarioari, zeina kontratazio publikoko araudiak zaintzen baitu. Arrazoi hori dela eta, erakunde pribatuen eta administrazio publikoen arteko lankidetzak soilik uler daitezke zerbitzu sozialak emateko kontraturik gabeko formulen bidez, baldin eta kudeaketa modu solidarioan egiten bada; hau da, irabazi-asmorik gabe eta itunen finantzaketak soilik hartzen baditu bere barnean kostu aldakor, finkoak eta iraunkorrak, eta ez etekin industriala.

Bakarrik bermatuta soilik finantzatzen zaizkiela prestazioen kostu aldakorrak, finkoak eta iraunkorrak, erakunde prestatzailearen ondare-ukiezintasuna zainduta baina etekin industriala barnean hartu gabe, edo berez irabazi-asmorik gabeko erakundeak direnean soilik justifikatzen da itun edota hitzarmenak izenpetzeko exiji daitezkeela alde aurretik baldintza batzuk betetzea –geografia-, lurralde- edo nazionalitate-erakoak– debeku baten salbuespen modura, hain zuzen ere estatu kide bateko herritarrak beste estatu kide bateko lurraldean libreki ezartzea mugatzeko debekuaren salbuespen modura. Ildo horretatik interpretatu behar dira GZL eta EHSSL uler dadin bat datozela eskubide komunitarioarekin.

- 4.-** Ituna, bestalde, kontratu-programaren bidez formalizatzen den unean perfektionatzen da.
- 5.-** GZLk, ekimen pribatuaren esku-hartzea arautzean erantzukizun publikoko gizarte-zerbitzuen prestazioan, eskatuko du: Gizarte Zerbitzuetako Erregistroko inskripzioa, administrazio-baimena eta aurretiko homologazioa.
- 6.-** GZLaren arabera ere, Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek, beren eskumenen eremuan, antolatu ahal izango dute Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko zerbitzuen eskaintza, honako hauen bidez: zuzeneko kudeaketa, itunak, zeharkako kudeaketa administrazio publikoen kontratazioko araudiaren esparruan, eta hitzarmenak irabazi-asmorik gabeko erakundeekin.

Eta hala, nahiz eta zuzentarauek gizarte-zerbitzuak sartu nork bere aplikazio-eremuetan, egia da estatu kideek “jarraitzen” dutela libre izaten zerbitzu horiek antolatzeke, emakidak gauzatzeko edo kontratuak sinatzeko; adibidez, finantzaketa soil baten bidez, edo lizentziak edo baimenak emanez aurrez finkatutako baldintzak



betetzen dituzten operadore ekonomiko guztiei. Betiere, publikotasun nahikoa bermatzen bada eta gardentasuneko eta diskriminaziorik ezeko printzipioak errespetatzen badira.

Administrazio publikoek zerbitzu-prestazioak gauzatzeko, erabil daiteke: kudeaketa zuzena (barnean sartzen dela bitarteko propioei enkargua egitea), administrazio publikoen kontratazio-araudiaren esparruko zeharkako kudeaketa, itun soziala eta hitzarmena.

7.- SPKLaren berrogeita bederatzigarren xedapen gehigarria bat dator baldintza horiekin honako hau betikitzen duenean: "Lege honetan ezarritakoa ez da oztopoa izango autonomia-erkidegoek, esleituta dauzkaten eskumenak baliatuz, legeak eman ditzaten; izan ere, kontratuez bestekoak diren tresnak artikulatu ahalko dituzte arlo sozialeko beharrianak betetzera bideratutako zerbitzu publikoak emateko".

Ildo beretik, 9/2017 Legearen 11.6 artikulua bere aplikazio-eremutik kanpo uzten ditu zenbait negozio eta kontratu, hala nola erakunde pribatuek zerbitzuak ematea, baldin eta zerbitzuak ematen badira kontratu publikoak egiteko beharrik gabe, besteak beste honako bitarteko hauen bitartez: zerbitzu horien finantzaketa soila, edo botere adjudikatzailerak aurrez finkatutako baldintzak betetzen dituzten erakunde guztiei lizentziak edo baimenak ematea, mugarik eta kuotarik ezarri gabe, baldin eta sistema horrek publizitate nahikoa bermatzen badu eta gardentasunaren eta diskriminaziorik ezaren printzipioei egokitzen bazaie.

Beraz, zerbitzua ematean interesa duten pertsonen arteko norgehiagokarik gabeko inguruabarra da, nahitaez; hori dela eta, erakunde guztiei ematen zaie lizentzia edo baimena, baldin eta eskatu eta baldintza guztiak betetzen badituzte.

Horrenbestez, legeri komunitario espezifikoa egon daiteke, kontratu bidezkoa ez den tresna bat egituratuko duena gizarte-izaerako zerbitzu publiko bat emateko –kontratu bidezko prestazioa bera– baldin eta pertsonen arteko norgehiagokarik ez badago zerbitzu zehatza emateko interesa duten pertsonen artean; betekizun hori ezinbestekoa izanik itun soziala arautzean, eta hori oinarria delako ez aplikatzeko kontratu-araubidea. Modu berean, kontratu-izaerako negozio juridiko baten aurrean gaudenean, aipatutako 9/2017 Legea aplikatu beharko da.

PROIEKTUAREN ARTIKULUEN AZTERKETA



Dekretu-proiektuari egin zaion txosten juridikoak azaltzen duenez, proiektuarekin modu integralean arautzen ari da aldebiko negozio juridikoaren eredu berri bat, horrek dakartzan zailtasun guztiekin; hori dela eta, iradokitzen da testuan sartzea aipatu beharreko arau guztiak, zeinen aplikazioak, modu osagarrian, lagundu baitezake dekretua interpretatu eta aplikatzen, batez ere egituratzen den tresnaren izaerarekin bateragarriak ez diren alderdietan kontratazio publikoaren arloan aplika daitekeen araudia (esate baterako, ituna sinatuko duen pertsonaren kaudimen tekniko eta profesionala, zergatik ez den baliagarria negozio juridikoa bera, aukerarik dagoen ala ez azpikontratatzeko, nola berrikusi moduluak ...).

Arauketaren helburu den negozio juridikoaren helburu zehatzari dagokionez, hura izan daiteke, 2. artikulua araberak: edo Katalogoko zerbitzua ematen duten zentro itunduetako plazak erreserbatu eta okupatzeko, edo zentroaren kudeaketa integrala egiteko, zentroaren kudeaketa integraltzat ulertu behar delarik zentro bereko GZESko Katalogoko zenbait zerbitzu edo prestazio hornitzea. Plazen problematika gorabehera, zeina gero aipatuko baitugu, garrantzitsua da une oro eztabaidatzea zein den itundu beharreko subjektua eta helburua.

Eta berriro aipatzen dugu "erakunde" terminoa; izan ere, esana dagoenez, GZLak haiek aipatzen ditu betekizunak ezartzeko, eta haiek aipatzen ditu ekimen pribatuak. Ematen du ez dela egokia "plazak" ituntzeaz hitz egitea "erakundeetakoei" edo "zentroetakoei" lehentasuna emanez. Dekretuaren aplikazio-eremuak berak (2. artikulua) "erakundeak" aipatzen ditu, nahiz eta jarraian esan itun sozialaren helburuak izan ahalko duela "zentro bakoitzak eskaintzen dituen plazetatik kopuru jakin bat erreserbatu eta okupatzea...". Batzorde honek ulertzen du subjektua eta helburua bereizi behar direla, eta erakundearentzat aplikagarri izan behar dela ituntze-betekizunak aplikatzea. Gainera, plazak ituntzeak beste arazo bat dakar, aurrerago azalduko duguna.

Zerbitzua emateko eskumena duen organoak eskumena izango du ituna egiteko eta, beraz, hura kontratu-programa bidez formalizatzeko (azken figura hori bakarrik aipatzen da proiektuan bigarren maila batean; horrela, adibidez, 4.3 artikuluan aipatu beharko litzateke); horregatik, "itun soziala" figuraren bidez kudeatzea zeharka kudeatzeko beste modu bat baino ez da, eta ez du ezertan aldatzen haren eskumena. Ondorioz, administrazio-organoren eskumena zehazteko, begiratu beharko da zer ezartzen duen araudiak kasuan kasuko zerbitzua emateko eskumenari buruz.

5. artikuluko 2. apartatuak printzipio hau jasotzen du: "Erakunde eskatzaileentzako tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza; sarbide-betekizunak konplitzen dituzten eskabide



guztien aldeko ebazpena emango da”: hori da sistemaren gakoa, eta, hala ere, artikuluetan zehar, itxuragabetuta dago; are gehiago, kontrakoa dio.

Lehenengo eta behin, itun sozialaren araubideko sarbide-betekizunak aipatu behar dira, Dekretuko 7. artikuluan jasotzen direnak:

“7. artikulua. Itun sozialaren araubidera sartzeko betekizunak eta ituntzeko ahalmena

1.- Ekimen pribatuko erakundeek ituntzeko ahalmena izango dute, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute, haien estatutuetan gizarte-zerbitzuen prestazioa jasota badago eta erregistroan inskribatuta egoteko eta baimena eta homologazioa izateko betekizunak betetzen badituzte Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 59. artikuluan aurreikusitako eta araudian garatutako moduan.

2.- Itun-araubidera sartzeko, honako baldintza hauek bete beharko dituzte erakunde eskatzaileek, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 64. artikuluekin bat etorritik:

a) Etengabe arreta eskaini izana itundu nahi den zentroan hartzaile direnen antzeko beharrianak dituzten pertsona, familia eta/edo taldeei.

b) Egiaztatu behar dute lehendik presentzia dutela zerbitzua eman behar duten eremuan; zehazki, lurraldearekin lotutako ibilbide bat izan behar dute, lanean jardunez komunitatearekin batera (sistema publikoak, erakundeak, pertsonak, baliabideak, ekimenak...), zentroak eskaintzen duen arreta hobetzeko moduan.

c) Egiaztatu behar dute, halaber, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroan finkatutako baldintzak betetzen direla bermatzeko nahikoa bitarteko eta baliabide daukatela .

d) Oro har edo berariaz aplikatzekoa zaien araudia bete behar dute, kontuan hartuta zein den erakundearen izaera juridikoa eta zer zerbitzu mota itundu den.

e) Zentroaren titulartasuna egiaztatu beharko dute, edo erabilera- eta gozamen-eskubide erreala izan zentroaren gainean; eskubide hori, betiere, ezin da izan itunaren indarraldia baino laburragoa. Egiaztatu beharko dute, hala badagokio, jabearen baimena daukatela, zentroa itunaren xedera bideratzeko.

f) Egiaztatu beharko dute beren antolamenduan, funtzionamenduan eta esku-hartzean berdintasun-printzipioa erabat errespetatuz jarduten dutela genero-ikuspegia egiazki



integratuz eta helburu horretara bideratutako berdintasun-neurri edo -planak egituratuz, bereziki familia eta lana uztartzeko neurriak.

3.- Itunaren erakunde esleitzailleak, aurreko apartatuko betekizunez gainera, sarbide-betekizun hauetako biren edo gehiagoaren konbinazioa ezarriko du deialdietan:

a) Beste zerbitzu eta/edo jarduera batzuk eskaini behar zaizkie pertsona eta, hala badagokio, familia erabiltzaileei, zentro itunduak berez eskaini ohi dituenek gainera (arretaren integritatea).

b) Pertsona eta, hala badagokio, familia erabiltzaileei arreta eskaintzea, bizitzaren edo gizarteratze- edo txertatze-prozesuaren etapetan (arretaren jarraitutasun).

c) Arreta pertsonalizatua eskaintzea pertsona eta, hala badagokio, familia erabiltzaileei, laguntza egokituz kasu bakoitzari, erakundeak eskaintzen dituen zerbitzu eta jarduerak konbinatuz, eta hirugarrenekin koordinatuz eta lankidetzan jardunez (arretaren pertsonalizazioa).

d) Sustapen-lana egitea, pertsona eta, hala badagokio, familia erabiltzaileek parte har dezaten erakundearen, zentroan eta jardueretan, bai eta esku hartzeko prozesu indibidualean eta familiarrean ere (parte-hartzea).

e) Beste zenbait betekizun, itundu beharreko zerbitzuaren ezaugarriekin bat datozenak, eta koherente direnak Batasunaren ikuspegiarekin eta gizarte-zerbitzuetarako kalitatearen Europako borondatezko esparruarekin.

4.- Aurreko apartatuko betekizun guztiek lotuta behar dute zentro itunduaren pertsona eta, hala badagokio, familia erabiltzaileekin, eta lagundu behar dute erabiltzaile horiek modu integralean nahiz zentro itunduan bertan jasotzen duten arreta hobetzen.

5.- Itunaren erakunde esleitzailleak, sarbide-betekizun gehigarriak zehazteko garaian, ahal denik eta koherenteen jokatu du Batasunaren ikuspegiarekin eta gizarte-zerbitzuetarako kalitatearen Europako borondatezko esparruarekin. Hala, ikuspegi eta esparru horiekin bat datozen betekizunak finkatuko ditu deialdietan, posible baldin bada, aintzat hartuz ituntzeko premien eta dagoen eskaintzaren ezaugarrien arteko erlazioa.

6.- Desgaitasunen bat duten pertsonen edo bazterketa-egoeran edo -arriskuan daudenei bideratutako Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako katalogoko zentroi dagokienez, itunaren erakunde esleitzailleek plangintzan uste badute litekeena dela eremu batean eta zentro mota



batean edo gehiagotan erakunde itunduak egotea, betekizun guztiak betetzen dituztenak eta, denak batera, eskatutako plaza guztiak kudeatzeko gaitasuna dutenak, bada, deialdian, sarbide-betekizun guztiak jasoko dira.

7.- Egiaztatutako baliabide material, tekniko eta profesionalek egokiak eta behar bestekoak izan behar dute, aplikatzekoa den araudian ezarritako betekizun material, funtzional eta pertsonalekoak betetzeko.

8.- Itunaren administrazio esleitzzaileak zehaztuko du zenbat denbora iraun behar duen etengabeko arretak, kontuan hartuz, besteak beste, nolakoa den zerbitzua eta zenbateraino dagoen finkatua eremuan. Normalean, 4 urtetik gora iraungo du.

9.- Deialdietan zehaztuko da nola egiaztatu behar den betekizunak betetzen direla; betiere, ulertuko da pertsona juridiko eskatzaileak bete behar dituela betekizunak; nolnahi ere, pertsona juridikoa lehendik zerbitzuak ematen diharduten erakunde-multzoak badira, haiexek bete beharko dituzte betekizunok.”

Beste behin ere aipatu behar da lehen momentutik azaldu beharko litzatekeela funtsezko betekizuna dela irabazi-asmorik ez izatea. Horrek dakar inongo zalantzarik gabe azaltzea kostuak baino ez direla finantzatuko, eta inoiz ez irabazirik, eta erakunde esleitzzaileak zehatz-mehatz ezarri behar duela zer sistema erabiliko duen egiaztatzeko zein izan diren erakunde esleituaren kostuak, zein den haiek -gutxienez urtero- berrikusteko araubidea eta nola doitu modulu ekonomikoak gastu horietara. Erakunde esleitzzaileak inoiz ez du gasturik finantzatuko, baldin eta behar bezala egiaztatuta eta ezin hobeki JUSTIFIKATUTA ez badago.

Eta, bestalde, itun sozialaren araubidera iristeak GZLaren 64. artikularen babesean – artikulua horrek gaitasuna ematen dio Jaurlaritzari beste betekizun batzuk sartzeko legearen erregelamendu-garapenean, eta hori harrigarria da– eska dezake beste inguruabar batzuk ere gertatzea, arreta pertsonalizatuari eta erabiltzaileen parte-hartzeari buruzkoak, baita azken klausula bat ere, irekita egongo dena “itundu beharreko zerbitzuaren” edozein betekizunetara eta haren kalitatera; horrek esan nahi du nahasmen handia dagoela erakunde, plaza eta zerbitzu,... terminoen artean. Azpimarratu behar da ituna erakundearekin egiten dela, eta ezin dela betekizunik ezarri diskriminazioa ekarriko dutenik, ezta hura positiboa izanda ere, plazei eta pertsonen dagokienez; izan ere, horrek urratu egingo luke norgehiagokarik eza; beraz, itunaren aurrean, araudira eta kontratazio publikoko figurara jo beharko litzateke. Zentroak itundu beharko dira, eta haietako bakoitzean araubide horretan eskain daitezkeen plazek zehaztuko dute zer modulu ekonomiko efektibok zuzenduko duen ituna.



Orain, bai: GZESen oinarritzko printzipioak dira arreta pertsonalizatu eta integrala, arretaren jarraitutasuna eta erabiltzaileek parte hartzea esku-hartze prozesuan, eta, oinarritzko printzipio direnez, osatzen duten prestazio eta zerbitzu guztiak informatu beharko dituzte, eta ez bakarrik itunduak; ematen du ezen, apartatu hori idaztean, zerbitzu itunduarekin batera, beste zerbitzu edo jarduera batzuk aurreikusten direla, batzuk emanak edo besteak garatuak, hala erakundeak modu aldebakarrean zehaztuta, nola hirugarrenekin koordinatuta edo lankidetzan; baina, nolana ere, izapidetzen ari den deialdi espezifiko helburutik kanpoko zerbitzu edo jarduerak eta, halakoak izanik, aipatutako deialditik kanpo edukiko luketenak araubide juridikoa eta aurrekontukoa.

Testuan aurrera eginda, III. kapituluak ituntze-prozedura azaltzen du, eta, zentzu horretan, zehazgabetasun terminologiko –edo beharbada kontzeptual– nabarmena agertzen du hitz egiten duenean “plazak ituntzea”z, “ekintza itundua”z, “erakundeak aurkeztu behar duen proiektu teknikoa”z. Ematen du berriro ahazten duela erakundeak edo zentroak izan behar direla beti.

Txosten honen helburua ez bada ere, “dokumentazioa aurkezteko era” telematikotzat joko da, eta adierazten ez diren epeak –adibidez, zuzentzeko eskakizunari erantzun ezean, eskabidean atzera egiten dela jotzen duena– izan beharko dira, halaber, administrazio-prozedurako legeriak finkatzen dituenak.

Balorazio-batzorde modura jokatzen duen kide anitzeko organo batek esku hartzeari dagokionez, ematen den txosten juridikoan ulertzen da ezabatu behar dela; izan ere, arautzen den negozio juridikoaren funtsetik kanpo geratzen da norgehiagoka aritzea. Nolanahi ere, itun-araubidera sartzeko betekizunak betetzen direla egiaztatzen duen organo bat izango litzateke, eta deialdian zehaztu beharko litzateke zein den haren osaera.

10.5 artikulua, itunaren figuraren ezaugarri den norgehiagokarik ezaren ildo horrekin bat, ezartzen du ezen alde aurretik ezarritako betekizunak betetzen dituzten eskabideek aldeko ebazpena izan behar dutela.

Behin aldeko ebazpena emanda deialdian eta araudi aplikagarrian aurreikusitako betekizunak betetzen dituzten eskabideei, dekretu-proiektuaren 10.6 artikulua azaltzen du erakunde itunduen artean banatu behar direla plazak. Horretarako, lehenengo eta behin, kontuan hartuko da ea prestazioa jasotzeko eskubidea aitortuta duten pertsonak zer plaza betetzen duten, eta, lehenengo banaketa horren ondorioz oraindik ere plazarik geratzen bada esleitzeko, esleitutakoak gutxiago direlako itunera atera zirenak baino, testuak dio diskriminazio positiboko neurriak aplikatu behar direla, 12/2008 Legearen 65. artikuluan aurreikusiak. Puntu horretan, berriro aipatu behar da kontratu-arautegitik kanpoko tresna



modura arautzen den figura horrek oinarritzat hartu behar dituela lehia librearen eta diskriminaziorik ezaren printzipioak, norgehiagokarik gabe; ondorioz, diskriminazio positiboko neurriak aplikatu gabe. Horri dagokionez, oso argigarria da irakurtzea zer zuzenketa egin zitzaion 2014/24/EB Zuzentarauari legebiltzar bidez, aipatzen denean estatu kideek jarraitzen dutela askatasuna izaten gizarte-zerbitzuak antolatzeko kontratu publikorik egin beharrik gabe; adibidez, botere esleitzailerik aurretik finkatutako baldintza guztiak betetzen dituzten operadore ekonomiko guztiei lizentziak edo baimenak finantzatu edo emanaz, ez mugarik ez kuotarik gabe, betiere sistema horrek publikotasun nahikoa bermatzen badu eta gardentasun eta diskriminaziorik ezeko printzipioetara egokitzen bada; eta zuzentaraua ez dela aplikatu behar estatu kideetan baliagarria dela erakutsi duten prozeduretan, zeinak oinarritzen baitira erabiltzaileak askatasunez hautatzean hornitzaileak; betiere, errespetatzen badira tratatuetan konsagratuta dauden tratu-berdintasuneko eta gardentasuneko printzipio orokorrak.

13. artikulua azaltzen du zein diren "Erakunde onuradunaren betebeharrak" (hemen bai, erakunde), haien artean dagoela: "a) Finantzaketa publiko osoa zerbitzu itunduetara bideratzea, zerbitzu horiek ematek inolako etekinik atera gabe" Hor bai jaso da ondo, nahiz eta zeharka, irabazi-asmorik gabekoaren ezaugarria, zeina, berriro diogu, sartzeko betekizuna izan beharko bailuke erakundearentzat. Erakundeak konpromisoa hartu beharko du, gutxienez bere ordezkariaren erantzukizunpeko adierazpenaz, ezen beteko duela sinatzen duen itunaren bidez duen betebeharra irabazirik ez lortzeko. Irabazi-asmorik gabeko erakundearen kasuan, alde batera utzi ahal izango da adierazpena.

Gainerako betebeharrari dagokienez, ez dira eztabaidatzen, baina ez dute eskaintzen egiaztatze-tresna edota -organo zehatzik: horrek kaltegarria ematen du, are gehiago 15. artikuluan -ituna "berritzeko" edo luzatzeko aukera azaltzen du- bide ematen denean itunak 8 urtera arte irauteko. Epe hori luzeegia da administrazio esleitzailerik ezin izan dezan zehapenik jarri bete beharrekoak ez betetzearen; horrek eskatuko luke sistema edo organo batzuk izatea betebeharrak betetzen direla egiaztatzeko.

Beste alde batetik, 8 urteko gehienezko iraupen hori gainditu ahal izango da zerbitzuaren prestazioa bermatzeko, baldin eta "ituna luzatzen bada akordio berri bat formalizatzeko hertsiki beharrezkoa den denbora-tarterako, zeina gehienez 12 hilabetekoa izango baita". Ematen du aurreikuspen hori ez datorrela bat betetze-araudia, egiaztapenak eta segurtasun juridikoa eguneratuta mantentzen dituen sistema batekin. Gomendatzen da ezaba dadila tarte hori (15.3 artikulua in fine).

Era berean, ziurgabetasun juridikoa eragiten du 16. artikuluan irekitzen den bideak, zeinak aukera ematen baitu ituna sinatu eta gero aldatzeko; kontuan izan bedi ituna sinatu dela



dagokion deialdi publikoa egin eta gero, non ezin hobeto zehaztuta geratu behar izan baita zein diren negozio juridikoaren funtsezko elementuak. Eta hori nahikoa arrazoiz izango ez balitz, oso lauso azaltzen da artikuluan zein izango diren aldaketak egiteko egon daitezkeen baldintzak; horrela, ia erabat alderdien esku geratzen da zehaztea zein izan daitezkeen aldatzeko arrazoiak eta "hitzartutako hobekuntzak" eta "kostuen desorekak", gehikuntza bat ekar dezaketenak "kontsignatutako zenbateko osoan" –zentroka?– ia ezer justifikatzeko premiarik gabe edo, sikiera, justifikazio exhaustiborik gabe.

17. artikuluari dagokionez –itunak azkentzeko kausak–, ematen du zaila dela gauzatzea ez-betetzeak dakartzan azkentze-kasuak; izan ere, ez da egiaztatze-neurririk hartu: zein diren egiaztatze-neurriak, zein izan daitezkeen zehatz-mehatz ez-betetzeak, aukerarik dagoen ala ez haiek berbideratzeko, nola eta zer epetan, eta abar.

Az kentzearen efektuei dagokienez, deigarria da zelan 18. artikulua azken apartatuak dioen: Ekintza itundua azkentzeak ez ditu inola ere kontsolidatuko itundutako zerbitzuari atxikitako lan-kontratudun langileak, itunaren administrazio esleitzailaren langile gisa". Proiektu guztian zehar ez da langile-gairik aipatzen, baina ematen du aipatu egingo direla hemen; nolana ere, komeniko litzateke argitzea ezen, ituna azkentzean eta haren bizitzan zehar, langile horiek ezin izango direla jo administrazio esleitzailaren langiletzat.

Azkenik, IV. kapitulu honi dagokionez, azken ohar bat egin behar zaio proiektuko 19.3 artikulua xedatzen duenari, eta hori egin behar da zeren zentro zehatz bat pertsona jakin bati esleitzea bakarrik mantendu ahal izango da denboran, baldin eta zentroak, itun baten bidez edo beste tresna juridiko egoki baten bidez, behartuta segitzen badu zerbitzua ematen.

VI. kapituluari dagokionez, eta egia bada ere GZLak berak aurreikusten duela hitzarmena erabiltzea irabazi-asmorik gabeko erakunde gizarte-ekimenekoekin Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemako Katalogoko prestazio eta zerbitzuak hornitzeko, beste behin ere gogoratu behar da hitzarmenen helburua ezin dela izan kontratuen berezko prestazioak ematea, eta, izango balitz, aztertzen ari garen kasuan bezala, haren izaerak eta araubide juridikoak egokitu egin behar dute sektore publikoko kontratuen legerian aurreikusitakora. Hala, ematen du nahikoa eztabaidagarria dela hitzarmenaren figura molda daitekeela gizarte-zerbitzuen eremura, sikiera dekretu-proiektuan agertu diren baldintzetan.

Ez da ahaztu behar ere zein diren hitzarmen bat apaindu behar duten gainerako ezaugarriak, hitzarmena hitzarmen izan dadin eta, beraz, sektore publikoko kontratuen arautegitik kanpo gera dadin (berriro aipatzen dugu SPKLaren 6. artikulua, goian ikusia).



Eta ez da egokia 20. artikulua parekatu nahi izatea itunen eta hitzarmenen araudiak; era berean, ez dira egokiak salbuespenezko ezaugarriak, hitzarmena erabiltzea justifikatzen dutenak eta artikulua horretan zehar definitzen direnak (berezia, urgentziatzkoa, berritzailea...).

Azkenik, 20. artikulua azken apartatu biek diote:

“8.- EAEko administrazio publikoek lankidetzako esparru-akordioak egin ahal izango dituzte Euskadiko hirugarren sektore sozialeko erakundeekin, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 70. artikuluan aurreikusitakoari jarraikiz. Nolanahi ere, kontratu, hitzarmen edo itun bakoitza dagokion prozedura espezifikoari jarraituz antolatuko da.

9.- Figura juridikoa aldatzearen ondorioz irabazi-asmorik gabeko erakundearen izaera galtzen bada, hitzarmena azkenduta geratuko da.”

Haietako lehenengoari dagokionez, GZLaren aipatutako 70. artikulua dio: “Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioek lankidetzako esparru-akordioak ezarri ahal izango dituzte irabazi-asmorik gabeko erakundeekin. Akordio horiek honako hauek jasoko dituzte: direla katalogoan sartutako zerbitzuak eskaintzeko erakundearekin ezartzen diren itun, hitzarmen edo kontratuak, direla katalogoan sartu gabeko gizarte-zerbitzuak eskaintzeko edo kasuan kasuko administrazio publikoak sustatzea egokitzat edo bidezko hartzen dituen beste jardura batzuk egiteko erakunde horiekin izenpetzen diren lankidetzako hitzarmenak.” GZLk ondoren ez duenez ezer deskribatzen esparru-akordio horiei buruz eta proiektu-dekretuak ere ez, figura hori guztiz itxuragabetuta geratzen da, eta ez du merezi dekretuan aipatzea, gero ez izateko hura garatzeko beharrik.

Proiektuaren azken partean sartuta, lehenengo xedapen iragankorrak arautzen du zer indarraldi duten itun sozialetik kanpoko tresna juridikoek, zeinak indarrean baitaude dekretu hau indarrean sartzean. Hemen, era guztietako hitzarmenak sar litezke, eta izaera mugagabea ere izan lezakete. Beraz, ematen du ez dela egokia gai horretan sartzea, eta are gutxiago kontratuenean. Izan ere, haiek beren araudia bete behar dute, lege-mailakoa eta oinarrizko izaerakoa iraupenari dagokionez, eta testu propioa dute; beraz, erregelamendu-mailako xedapen autonomiko batek ezin du ezer aipatu gai horri buruz.

Era berean, bigarren xedapen iragankorra ere ez da egokia, zeren, katalogoko zerbitzu-mota jakin bateko lehenengo itun-deialdian, aldeko ebazpen bat ezartzen du erakunde guztientzat baldin eta sarbide-betekizunak betetzen badituzte eta aurretik lankidetzan jardun badute administrazioarekin zerbitzua hornitzen; izan ere, proiektuko 10. artikuluko



sarbide-betekizun guztiak betetzen badituzte, aurreikusita dago aldeko ebazpena haientzat guztientzat, eta xedapen horrek pentsarazi lezake administrazio esleitzailleak erabakimen bat duela zer ebazteko alde eta zer ez.

Eta hirugarren xedapen gehigarriak, zeinak zenbait betekizunen salbuespen-araubidea ezartzen baitu ezarriz nahikoa dela behin-behineko inskripzioarekin, ez dirudi batere egokia lege baten garapen-xedapena izateko.

Azkenik, soilik txosten juridikoetan jasotzen diren oharrek kontuan hartzen duen dekretu-esparru batean eta besteak beste honetan uler daiteke onargarria dela administrazio bakoitzak jotzea bere ekintza itunduko arauketa espezifikora, testuaren xedapen gehigarriaren arabera, zeinak, aldi berean, GZLaren zortzigarren xedapen gehigarriaren berri ematen baitu.